

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA POESIA 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Orbantxoa

Miren Salvoch Goia

Hantxe nuen neskatxa hura
aurre aurrean,
begitara begira
pare parean.

Bere aurpegierak grazia egin zidan
banekien nor zen
are gehiago,
ederki ezagutzen nuen.

Une labur batez,
denbora geldiarazita,
haren aurpegia miatu nuen xehetasunez
ezpainetan, masail gorrietan,
bere begi dirdiran murgilduz.

Eta hara, une batean,
orbantxo txiki bat nabaritu nuen
non eta ispiluaren erdigunean.

“Tira, oraintxe xahutuko dut”
Hatzarekin garbitu nuen orduan.